

297/2025 EBAZPENA, abuztuaren 4koa, Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Goierri-Urola Garaiko ESiko Otorrinolaringologiako atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda eta balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Goierri-Urola Garaia ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 28ko 114/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Goierri-Urola Garaia ESiko Otorrinolaringologiako Osasun Ataleko buruaren lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko (2025eko maiatzaren 15eko EHAA eta 2025eko maiatzaren 26ko BOE).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, ebazpen horren eskabideak aurkezteko 15 egun baliouduneko epea ezartzen da, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko ekainaren 16an amaitu zen.

Goierri-Urola Garaia ESiko zuzendari gerentearen uztailaren 11ko 241/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Goierri-Urola Garaia ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. –Goierri-Urola Garaiko ESIn Otorrinolaringologiako atal sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena. – Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Zumarragan, 2025eko abuztuaren 4a.

Goierri-Urola Garaia ESko zuzendari gerentea,
EB(0127/2017 Ebazpena, otsailaren 27ko)

Langileen zuzendaria
IDOIA ORTIZ DE LUZURIAGA HERNANDEZ



I. ERANSKINA

OTORRINOLARINGOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- LUQUI ALBISUA, IÑIGO

Baztertuak:

- Inor ez.

II. ERANSKINA

OTORRINOLARINGOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: JAVIER CALZADA BARRENA

Ordezkoa: PEDRO MORRONDO VALDEOLMILLOS

Lehenengo kidea:

Titularra: ROBERTO CIORDIA DOMÍNGUEZ

Ordezkoa: ADELINA PÉREZ ALONSO

Bigarren kidea:

Titularra: JAVIER GÓMEZ SUAREZ

Ordezkoa: AITOR ZABALA LÓPEZ DE MATURANA

Hirugarren kidea:

Titularra: XABIER ALTUNA MARIEZCURRENA

Ordezkoa SANTAOLALLA MONTOYA, FRANCISCO

Laugarren kidea (IVAPek proposatua):

Titularra: MIREN SONSOLES GOIBURU MINGUEZ

Ordezkoa: OLALDE ECHEVERRIA, MANUEL ANGEL

Idazkaria

Titularra: IDOIA ORTIZ DE LUZURIAGA HERNÁNDEZ

Ordezkoa: ANDONI PARRA DIEGO